

# PASILEKUE DANON LEKUE PASILEKUE BIZIRIK!

Gazte moduen geuk be bat egiten dogu umeeek eta gurasoek pasilekue salbetako hasi daben ekimenagaz.

Geuk be umetan hemen jolasten gendun, oin be hemen jolastuten dogu.

Umiek, gurasoak, aittite-amumak eta gu, gaztiok, hementxe batzen gara, paselekuen. Hau guztion aterpe izan da oso aspalditik... eta bonbardaketa aurretik be halan izan zan.

Hor arkupien horma handi bat egin dabe astion, gernikarron aterpe garrantzitsu izan dan pasilekuko arkupien azken zatixe zarratu guran.

Inori galdetu barik kendu eben kioskoa, apurtu eben frontoie eta oin geratzen dan gitxixe zarratu gura dabe. Guk be eztogu nahi arkupie kentzerik. Herrixen ezer galdetu barik 3 edo 4k hartzien kontra gagoz. Herrixen eritzixe interesgarrixe izen biko leke udaletxe batentzat, herrixentzako lan egiten badau behintzet.

Pasilekue espazio ireki bat izen biher dala pentsetan dogu gaztiok.

Hori holan dala, agintarixeri esijiduten dautsuegu:

- Herrixen eritzixe errespetetie
- Obrie gelditu, hormie bota eta eskonbroak ataratie. Inguru guztixe garbitzie. Zuek egiten ez badozue geuk egingo dogu.
- Txikiparka paselekutik atara eta arkuak irekitzea.

PASILEKUE DANON LEKUE  
PASILEKUE BIZIRIK!